

Olaibarko euskal bertso papera

JOSEMARI SATRUSTEGI*

Eskuizkribu hau orain dela urte asko iritsi zen niregana. Ez nion garrantzi handirik eman, bigarren edo hirugarren eskuko aldaki edo kopia berandukoa zelakoan. Gaiaren aldetik ez du mezuaren funts handirik mantendu, eta bertsoen neurria erabat desorekaturik dago. Norbaitek ahoz emandako testu ilunaren itxura du izkribuak.

Paper zaharren artean uste gabe berriro eskuratzean, zerbait baliagarrikerik baduela iduritu zait eta, besterik ezean, euskara galdurik dagoen ibarreko lekukotasunagatik edo plazaratzea erabaki dut.

Kopla zaharren moldean egina izan zen noizbait kantua eta bertso mota honen hasierako zenbait aipamen ohikoak izan arren, hala nola *Ceruan eder izarra / errecaledeco lizarra* (63), beste ideia batzuk arrotzago dira, hala nola *Sagarra da sagarcean / erori eta lur ozean* (35). Bi puntuko bertso parekatuen hasiera horiek, batzuz beste, jakingarriak dira eta banan banan aipatuko dira geroago. Baina bertsoaren lehen atalak itxura nolabait atxiki badu ere, bigarren zatia gehienetan galdu da eta betegarritzat sartutako, *Orra bada Bicario jaunable orrec*, hamabost aldiz errepikatutako esaldi hutsalak bete du jarraipen zehatzaren haria, ez neurri eta ez gatz.

Horrenbestez ikusten da apaiz baten aurkako salaketa izan nahi duela, azken bertsoan garbi agertzen den moduan: *Elizan eder arguizari / echequi eta arguilari, / orra bada fulana andre ori / Bikario jaunableorren cerbizari*.

Grafiaren arabera XIX. mendearen azken aldiko izkribua izan daiteke. Horrek ez du esan nahi jatorrizko eredia nahitaez ordukoa zenik. Baina, beste argibiderik ezean hemeretzigarren mendekotzat emango da testua

JATORRIA

Iruñetik gertu, ipar aldera, Belateko bidean dago Olaibar. XIX. mendearen hasieran bost herri eta bi jauregi osatzen zuten, 255 biztanlerekin.

* Euskaltzaindia. Real Academia de la Lengua Vasca

Hauek dira herrien izenak: Beraitz, Enderitz, Olabe, Olaitz, Otsakain, Otsabide eta Zandio.

Hegoaldetik Iruñerriko Ezkabarte ibarrarekin mugatzen da. Ipar aldean Odieta eta Anue, sortaldean Esteribar, mendebaldean Esteribar berriro eta Odieta ibarrak ditu aldamen... XIV. mendeko zerga paperetan badirudi Olabe zela ibarraren izena.

Ultzama ibaiaren ertzean kokatzen dira herriak eta berandu arte *Mediano* izan da ibaiaren izen arrunta.

Olaitz herria ibaiaren eskubi aldean dago, Olabe daukalarik gertu ezker aldetik. Beraitz, Enderitz eta Zandio ere aldamenak ditu aipatutako Olabe-kin batera. Bost etxe zituen XIX. mende hasieran herriak eta 35 biztanle¹.

Bi orrialdetan dator testua eta hiru zutabetan banaturik daude bertsoak. Hamazazpi ahapaldi dira orohar, eta 70 lerro osotzen dituzte. Carolina Maquirriain Olaizko alabak eskuratu zizkidan, bere etxean aurkitu zituztela esanez.

Eskuizkribu laburra da, beraz, eta lan honetan aurki dezake kopia osoa irakurleak. Ohar eta aipamenen erraztasunerako bost lerroka zenbaturik aurkeztuko da orijinala.

Honela dio:

<i>San Martinen atari maistro onak ezarri orra bada Bicario jaunbleori gan sarzean agueri.</i>	
<i>Gan sarzean agueri eta aterazean obequi aterazean obequi eta bidean yoaitean cortesqui.</i>	5
<i>Elizarian iturri urre birus derati, orra bada Bicario jaunbleorrec gan icuzten badaqui: Gan icuzi, gan chucatu Imajina du iduri.</i>	10
<i>Echean eder mandio mandazai orrec adio orra bada Bicario jaunbleorrec zazpi erresuma balio.</i>	15
<i>Echean eder gerrena ardanzean da goyena orra bada Bicario jaunbleori baradizuan goena.</i>	20
<i>Lamieta da pintatu ichasoan da plantatu orra bada Bicario jaunbleori baradizuan fundatu.</i>	25

¹ *Diccionario Geográfico-Histórico de España*. Sec. I, t. II (Madrid 1802)

<i>Esquilac dira errepicazen obria benedicazen orra bada Bicario jaunableori ainguiruequin da minzazen.</i>	30
<i>Bicario jaunableori Elizan bere arrosario sainduequin orra bada ainguiruec cantazen diote (bere escu.....)</i>	
<i>Sagarra da sagarzean erori eta lur ozean; orra bada Bikario jaunableorec amabi ainguru biozean.</i>	35
<i>Ardiac daza belarrez erriberaco canpadres orra bada Bicario jaunableorrec bularrarte ori zilarres.</i>	40
<i>Bularrarte ori zilarres eta beguiac orre botones beguiac urre b(o)tones eta escuac urre zila(r)res.</i>	45
<i>Ceruan eder izarra errecaldeco lizarra, orra bada Bicario jaunableorrec urre birus du bizarra.</i>	50
<i>Elizan eder liburu urre birus inguru orra bada Bicario jaunableori baradizuan ainguru.</i>	
<i>Elizan eder caliza soinean super peliza orra bada Bicario jaunableori meza email(e) cortesa.</i>	55
<i>Mantu belza lurrereino cabardina erdireino orra bada Bicario jaunableorren pareric ezta Salamancatic gonaino.</i>	60
<i>Elizan eder arri gorri anda jarri Bicario jaunableorri orra bada errico chiquin andi guziec barca dezoten berori.</i>	65
<i>Elizan eder arguizari echequi eta arguilari orra bada fulana andre ori Bicario jaunableorren cerbizari.</i>	70

Ezin da neurtu jatorrizko bertsoek zuketzen balioa erdi galdutako hondakin hauen ikuspegitik. Nolanahi ere, koplak zaharren lehen aipuak aintzat hartzekoak dira, bai gorde direnen nola etendakoen itxurari bagagozkio. Zorritzarrez, lehen esan bezala, bertsoaren bigarren parteko zirtada kasu gehie-

netan galdu egin da edo desitxuraturik agertzen da, eta horretan azalduko zen egilearen maisutasuna.

Oraingoz eiharak ez du beste urik ibaiak daramana baizik, eta dagoen dagoenean argitaratuko da eskuizkribua iturri hobearen zain.

TESTUARI OHARRAK

Lehenengo lerroan agertzen den santuaren aipamena, *San Martinen atarri / maistro onak ezarri*, etxe izena edo etxeko nagusiaren abizena zatekeen, Olaizko elizaren zaindaria san Migel baitzen. Gerta liteke berriemaileak Olaitzkoa ez baino, beste nonbait gertatutako gaia gogoratzea eta elizako zaindaria aipu duen jakiterik ez legoke orduan.

Hiru bider uztartzen da aurreko bertso amaiera hurrengo bertsoarekin. Baliatzen zukeen orijinalak ohitura zaharreko lokarrien teknika? *Gan sarzean agueri. / Gan sarzean agueri eta / aterazean obequi, / aterazean obequi eta / bidean yoaitean cortesqui* (4-8).

Elizarian iturri / urre birus derati (9-10). *Biru*, *piru*. Haria edo hari izpia. *Urre birus* esaera aurrerago ere errepikatzen da (49, 51). *Urre pirua darion iturria* izan daiteke mezua, elizaren inguruko gauzen itxura ona edo itzala adierazteko. Oso berezia da *derati* aditz forma. Berriemaileak ez zekikeen, behar bada, euskaraz ongi mintzatzen. Gure ustez, *jario* aditzaren formaren bat estal dezake. Errimaren ildotik, *darioki* edo antzeko zerbait izan zitekeen.

Gan icuzten badaqui. / Gan icuzi, gan chucatu. *Icuzi*, garbitu. Egoera izkutua zelako susmoa ematen du. Bertsoen arteko lotura berriro.

Echean eder mandio / mandazai orrec adio....zazpi erresuma balio. (15-18). Iluna gertatu arren *mandio / mandazai* hitzen lotura, hurbiltzerik badago amaierako eserarekin. Neskatoaren etxeko nagusia dagoke solfan.

Echean eder guerrena / ardanzean da goyena..., *baradizuan goena* (19-22). XIX. mendean baziren ardantzeak Olaitzen. Mahats gutxi eta txarra ematen omen zuten². Mendi bularretan ote zueden? Nolabaiteko goratasuna paradisu goiarekin parekatuz, zeru lurrak uztartzen ditu elizgizonaren bizian.

Lamieta da pintatu / ichasoan da plantatu (23, 24). *Lamia* egon daiteke aipamen honen oinarrian, izan ere itsasoarekin loturik dago esaera: *Lami(n) eta da pintatu / itsasoan plantatu*. Emakumeari buruz gorpuztutako bertsoa dirudi erakargarri izanik berez, laminaren lilura amesgarrienera bultzatua.

Esquilac dira errepicazen / obria benedicazen (26, 27). Apaizaren azaleko irudia gogoratzen du eta azken bertsoak baduke bere zentzu bikoitza: *ainguiruequin da minzazen*.

Ildo beretik, bizitza ereduagarriari uko eginiko egoera txarra adieraz dezake hurrengo ahapaldiak: *Sagarra da sagarcean / erori eta lur ozean...*, *hamabi ainguiru biozean* (35-38). Aingerukoitasuna amodioaren behin-behineko zorion atsegintzat har liteke.

Ardien kopia jaso duen idazlumak bertsoa eten du bigarren lerroa luzatuz. Honela izan beharko luke: *Ardiac daza belarrez / Erriberako canpadres*. Ulergarritasunari begira, *daza* hori, *doaza* edo antzeko aditz forma gaizki en-

² "En Olabe, Olaiz, Osacain y Zandio hay algunas viñas, que rinden poco fruto y de mala calidad". *Dic. Geog-Hist. de España*. (Madrid 1802) *Olaiz* sarreran.

tzuna izan daiteke, akats hutsa ezpada. *Canpadres* hitzak erdarazko *compadres* dakar gogora, baina besterik dirudi. Itxuraz, erdarazko *campa*, *canpadera* edo (a)*campada* antzeko erroren batekin loturik dagoke. Irakurketa hau proposa nezake: *Ardiac d(o)aza belarres / Erriberaco (a)canpades*. Jakina da udazkenean Erriberako borro artalde asko igotzen dela Nafarroa goiko mendietara bidean egonaldiak - '*acampada*'- asko egin behar izaten dutelarik. Euskal artzainen artaldetxoan aldean eberastasun handiko ereduak ziren. Hortik, behar bada, *bularrarte ori zilarrez*, bukaerako esaldiaren lotura. Azkenik, Nafarroako herri-gazteleraz *campadera* hitza ere ibili izan da 'dermio' edo 'bazka lekua' adierazteko.

Ohiko koplak zaharren ardatza ez du erabat galdu hurrengo ahapaldiak:

Bularrarte ori zilarres eta
beguiac orre botones,
beguiac urre botones eta
eskuac urre zilarres.

Kopla batzuk gaurregun ezagutzen diren eske-kantuetatik hurbil daude. Hainbat aldiz errepikatutako betegarri luzeegiari *orra bada* kirtena laburtuz, besterik ezean, itxura arintzen zaio, eta *Jaunable* bitxia 'jaun noble' delakoan, honela aurkez daitezke hurrengo bertsoak:

*Ceruan eder izarra
errecaldeco lizarra,
Bicario jaunobleorrec
urre birus du bizarra.* 50

*Elizan eder liburu
urre birus inguru,
Bicario jaunobleori
baradizuan ainguru.*

Elizan eder caliza 55
*soinean super peliza,
Bicario jaunobleori
meza email(e) cortesa.*

*Mantu belza lurrereino
cabardina erdireino,* 60
*Bicario jaunobleorren pareric ezta
Salamancatic gonaino.*

*Elizan eder arri gorri
anda jarri Bicario jaunobleari,
errico chiqui andi guziac* 65
barca dezoten berorri.

Bertso neurria galdua du noski aldakiak, horren adierazgarri nabarmena delarik azken ahapaldia:

Elizan eder arguizari
echequi eta arguilari,
orra bada fulana andre ori
Bicario jaunobleorren cerbizari.

Etxequi, piztu.

HIZKUNTZA BEREZITASUNAK

Goi-nafarrera hegoaldekoan ohi denez, hitz hasierako *h*-letraren orde *g*-idazten du: *Gan sarcean agueri* (4, 5); *gan icuzten* (12), *gan icuzi* (13); *Salamancatic gonaino* (62). Hamabost aldiz errepikatzen den *jaunableori* topikotan, *ori* erakuslea hitzari loturik agertzen da *-g-*gabe; *mandazai orrec adio* (16) esaldian ere berdin gertatzen da, *orrec* berezirik egon arren.

z / s letren arteko trukea ere normalizat har daiteke. Hitz amaierako *-s* jabetzen da izkribuan, euskalki gehienetan *-z* izan arren: *urte birus bizarra* (50); *bularrarte ori zilarres* (42, 43); *beguiac urte zilarres* (44, 45); *erriberaco canpadres* (40). Salbuespentzat har daiteke *belarrez*: *ardiac d(o)aza belarrez* (40).

Beste maila batean, *baradizu* (22, 26, 54), *cerbizari* (70); baina *eskilac* (27).

Norainokotasuna bi eratan agertzen da: a) *-reino* atzizkiarekin, *mantu beltza lurrereino* (59), *cabardina erdireino* (60). b) *-aino* forman, *Salamancatic gonaino* (62).

Guzia forma erabiltzen du, ez *guztia*: *chiquin andi guziec* (65); *j / y* grafiari dagokionez, biak dakartza: *yoan*: *bidean yoaitean cortesqui* (8), baina *jarri*: *anda jarri* (64), eta *jaunable*.

HIZTEGIA

- AINGUIRU. *Ainguiruequin da minzazen* (30); *amabi ainguru biozean* (38); *baradizuan ainguru* (54)
- ANDA. Santuen irudiak eramateko tresna. *Anda jarri Bikario jaunbleari* (64)
- ARDANZE. *ardancean da goyena* (20)
- ARGUILARI. *echequi eta arguilari* (68)
- ARGUIZARI. *Elizan eder argizari* (67)
- ARRIGORRI. *Elizan eder arri gorri* (63)
- ARROSARIO. *Elizan bere arrosario sainduequin* (32)
- ATARI. *San Martinen atari / maistro onac ezarri* (1)
- BARADIZU. *Baradizuan goena* (22); *baradizuan fundatu* (26); *baradizuan ainguru* (54)
- BARCA(tu). *Barca dezoten berorri* (66)
- BENEDIKA(tu). *Obria benedicazen* (28)
- BERORRI. *Barca dezoten berorri* (66)
- BICARIO. Herriko apaiza, abadea. (3, 11, 13, 21, 25, 29, 31, 37, 41, 49, 53, 57, 61, 64, 70)
- BIRU. Piru edo hari printza. *Urte birus du bizarra* (50); *Urte birus derati* (10); *urte birus inguru* (52)
- BIZAR. *Urte birus du bizarra* (50)
- BULARRARTE. *Bularrarte ori zilarres* (42, 43)
- CABARDINA. *Kabardina erdireino* (60)
- CALIZA. *Elizan eder caliza* (55)
- CANPADRE. *Erriberaco canpadres* (40)
- CERBIZARI. *Bicario jaunbleorren cerbizari* (70)
- CERU. *Ceruan eder izarra* (47)
- CORTES. *Meza email(e) cortesa* (58); *bidean yoaitean cortesqui* (8)
- CHIQUI. *Errico chiquin andi guziec* (65)
- CHUCA(tu). *Gan icuzi, gan chucatu* (13)
- DAZA. *D(o)aza? Ardiac daza belarrez* (39)
- DERATI. *Jario aditzetik? Elizarian iturri / urte birus derati* (9, 10)
- EDER. *Elizan eder caliza* (55); *Echean eder mandio* (15), *ceruan eder izarra* (47)
- EHEQUI. Piztu. *Elizan eder argizari / echequi eta arguilari* (67, 68)
- ELIZA. *Elizarian iturri* (9). *Elizan bere arrosario sainduarequin* (32)
- ELIZARI. Eliza sarrera. *Elizarian iturri* (9)

- ESQUILA. *Esquilac dira errepicazen* (27)
 ERRECALDE. *Errecaldeco lizarra* (48)
 ERREPICA(tu). *esquilac dira errepicazen* (27)
 ERRESUMA. *Zazpi erresuma balio* (18)
 ERIBERA. *Ardiac daza belarrez / Erriberaco canpadres* (39, 40)
 EZARRI. *San Martinen atari / maistro onac ezarri* (1, 2)
 FULANA. *Orra bada fulana andre ori / Bicario jaunbleorren cerbizari* (70)
 FUNDA(tu). *Baradizuan fundatu* (26)
 GAN. Han. *Gan sarzean agueri* (4, 5); *gan icuzten badaqui* (12); *gan icuzi, gan chucatu* (13)
 GOENA. *Baradizuan goena* (22)
 GONAINO. Honeraino. *Salamancatic gonaino* (62)
 GUERREN. *Echean eder guerrena* (19)
 GUZI. *Chiquin andi guziec* (65)
 ICUZI. Garbitu. *Gan icuzten badaqui*. (12); *Gan icuzi gan chucatu* (13)
 IMAJINA. *Imajina du iduri* (14)
 IZAR. *Ceruan eder izarra* (47)
 JAUNABLE. *Jaunbleorrec, Jaun noble horrek*. (3, 11, 17, 21, 25, 29, 30, 37, 41, 49, 53, 57, 61, 64, 70)
 LAMIETA. *Lami(n) eta? Lamieta da pintatu / ichasoa da plantatu* (23, 24)
 LIBURU. *Elizan eder liburu* (51)
 MAISTRO. *Maistro onac ezarri* (2)
 MANDAZAI. *Mandazai orrec adio* (16)
 MANDIO. *Echean eder mandio* (15)
 MANTU BELZA. Gaztelaniaz, manteo. *Mantu belza lurrereino* (59)
 MEZA EMAILE. *Meza email(e) cortesa* (58)
 MINZA(tu). *Ainguiruequin da minzazen* (30)
 OBRIA. *Obria benedicazen* (28)
 ORRA bada. (3, 11, 17, 21, 25, 29, 33, 37, 41, 49, 53, 57, 61, 65, 69)
 ORRE. Ik. Urre. *Eta beguiac orre botones* (44)
 PINTA(tu). *lamieta da pintatu* (23)
 PLANTA(tu). *Ichasoa da plantatu* (24)
 SAGAR. *Sagarra da sagarzean* (35)
 SAGARZE. Sagardi. *Sagarra da sagarzean* (35)
 SAINDU. *Elizan bere arrosario sainduequin* (32)
 SOIN. *Soinean super peliza* (56)
 SUPERPELIZA. Gazt, 'sobrepelliz'. Apaizen jantzi gaineko zuria. *Soinean super peliza* (56)
 URRE, ORRE. *Beguiac orre botones. / Beguiac urre botones eta / escuac urre zilarres* (45-47); *urre biru du bizarra* (50)
 ZILAR. *Bulararte ori zilarres* (43); *escuac urre zilarres* (45)
 YOAN. *Bidean yoaitean cortesqui* (8); *Baina Jarri: Anda jarri Bicario jaunbleari* (64)

LABURPENA

Olaibarko euskal eskuizkribu argitaragabe bat azaltzen da lan honetan. Bertsoan dago eta apaizen baten aurkako salaketa du gaia. Ez da jatorrizko testua. Ahozko tradizioetik jaso dirudi eta aldakiak hutsune asko dauzka. Olaitzen agertu da eta ibar horretan euskara galdurik dagoenez lekukotasun baliagarria izan daiteke.

RESUMEN

El trabajo presenta un manuscrito inédito de Olaibar. Está redactado en verso y denuncia la vida privada de algún eclesiástico. No es texto original. Da la impresión de que ha sido tomado de la tradición oral y la copia presenta muchas lagunas. Procede de Olaitz y el testimonio puede ser interesante por tratarse de un valle que ya no conserva la lengua vasca.

RÉSUMÉ

Le travail présente un manuscrit inédit d'Olaibar. Il est rédigé en vers et dénonce la vie privée d'un certain ecclésiastique. Ce n'est pas un texte original. Il donne l'impression d'avoir été repris de la tradition orale et la copie présente un grand nombre de lacunes. Il vient d'Olaitz et le témoignage peut être intéressant car il s'agit d'une vallée où la langue basque n'a pas été conservée.

ABSTRACT

The study offers an unpublished manuscript from Olaibar. The manuscript is written in verse and condemns the private life led by a certain member of the clergy. The text is not original and would appear to be taken from the oral tradition, the copy coming with a number of gaps. The manuscript is from Olaitz and the testimony it bears may prove to be of interest due to the fact that this valley no longer conserves the Basque language.

San Martinen atari
 maistro onak erarri
 orra bada Bizarri jaunbleori
 gau sarrean agueri
 Gau Sarrean agueri eta
 ateranean obequi.
 ateranean obequi eta
 bidean goaitan cortesqui
 Elizarian iturri
 urre birus derati.
 orra bada Bizarri jaunbleorree
 gau ~~icartu~~ badaqui
 Gau icuri gau chucatu
 unafina du iduri
 Echean eder mandio
 mandari core adit
 orra bada Bizarri jaunbleorree
 zarpi eresuma baiu
 Echean eder quereu-
 ardanrean da goyua
 orra bada Bizarri jaunbleor-
 baradizuan goyua

Camieta da pintatu
 ichasoa da plantatu
 orra bada Pheasio jaunableori
 ParadiSean fundatu.

Esquilae dira erepicaeren
 orria benedicaren
 orra bada Pheasio jaunableori
 ainguiruequin da munsaren
 Pheasio jaunableori
 Etzan bere arrosari sainduequin
 orra bada ainguiruec cantaren diote
~~buru~~ ~~zuzen~~ zuzenlucian.

Sagarra da zagarrean
 orri eta lur orrean
 orra bada Pheasio jaunableorec
 amate ainguiru Pheasian

Ardiaz daza
 belarrec orribenac campadres
 orra bada Pheasio jaunableorec
 bularrarte ori zilares

~~Bularrarte~~ Bularrarte ori zilares
 eta bequiae orre botones
 bequiae orre tonos eta
 orre orre zilares

Cernau edet irarra
 errecaaldeco lirarra
 orra bada bicario jaunableorre
 erre birus du birarra

Eliran edet liburu
 erre birus inguru
 orra bada bicario jaunableori
 barabizuan ainguru

Eliran edet calira
 soinean super felira
 orra bada bicario jaunableori
~~maite~~ ematen coteria

Mantu belra lurrereiu
 cabarolina erdirreiu
 orra bada bicario jaunableorren pareu
 Salamancate gonaino ^{ei}

Eliran edet arri gorri
 anda jarri bicario jaunableori
 orra bada erriet chiquin andi gurie
 barea deroten berori

Eliran edet arquirari
 cebuqui eta arquilari
 orra bada fulana andre ori
 bicario jaunableorren cebirari